

Asisko gutuna

2011ko apirila. 2. printzipioa. Eguneroko bizimodua:

barnerantz, umiltasuna

30. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Hori da apaltasuna: norberaren mugak eta ahuleziak ezagutzea eta ezagutza horren arabera jokatzeko. Barnerantz begiratzen duen eguneroko apaltasuna dugu Asis Sareko bigarren printzipioa, eta berak ematen dio edukia Gutun honen edizio berri honi. “Norberaren mugak ezagutzea eta ezagutza horren arabera jokatzeko” hori argi agertzen da

eta garrantzi handikoa dirudi, baina zein zaila gertatzen den. Hala ere funtsezko printzipioa da hori, geure buruari iruzurrik egin gabe bizitzeko. Gutun honetako gogoetarako gaiak esango digu, geure baitara begiratzea eta Jainkoak begiratuak izaten uztea ditugula apaltasun horretara hurbiltzeko medioak.

Gogoetarako gaia

Geure baitara begiratu

Geure baitara begiratzea lan betea eta neketsua da. Zer garen ulertzen laguntzen digu, eta ikusarazi egiten dizkigu bultzatzen gaituzten mekanismoak, mugitzen gaituzten errealitateak, hartzen ditugun jarrerak, menpean hartzen gaituzten sentimenduak.

Geure baitara hurbiltzeak lagundu egiten digu, geure gatazkatan dugun erantzukizun-partea ulertzen, besteek ikusten dutenari erreparatzen, gertatzen zaigunaren errua beti besteei ez botatzen. Dugun izaera eta ahalmenari begiratzeak lagundu egiten digu esker oneko izaten, gauzak onartzen, geure buruari eta besteei behin eta berriz barkatzen. Geure barrura begiratzeak erakutsi egiten digu geure alderik onena eta txarrena, geure dohain handiak eta geure zauri-guneak.

Trabeak gara geure buruari tranpak egiten; geure burua gehiegi maite ez dugunez, inoiz ankerrak gara geure buruarekin; eta besteetan itsuarena egiten dugu, ispiluan ikusten duguna batere gustatzen ez zaigulako. Askok kostatzen zaigu geure buruari neurria hartzen. Geure buruari begiratzeak pixkanaka hurbildu egiten gaitu geure-geure dugunera, geure

baitan ustekabeko espazioak irekiz: tokia egiten dio isiltasunari, baita kontenplazioari ere. Toki horietan goaz garena, geure bihotza, aurkituz. Hor sumatze dezakegu apurka bizi gaituen presentzia hori, eta hor jar gaitzeko apalki eta konfiantzaz Jainkoaren eskuetan. Berorrek, bai, ezagutzen du gure neurria.

Ebanjelioan Jesus Samariako emakumearekin aurkitzen denean, Jesusek hark bizi duena adierazten eta erakusten dio, pupu-leungarrik gabe, baina baita epaitu eta gaitzetsi gabe ere. Emakume samariarrak Jesusen aurpegian ikusten du bere burua eta errealitatea, aurre egin behar dion errealitatea, baina onartua eta konfiantzaz begiratu dela sentitzeak bekatutik liberatzen du. Maitasunak sendatu egiten du.

Geure baitan begiratu, Hari guri begiratzen uzten badiogu, onartu ahalko dugu garen hori, eta borroka egin suertatu zaigunaren alde.

Roger anaiak honela zioen bere otoitzean: “Zuk dugun guztia konprenitzen duzu”. Beraz jar dezakegu geure begirada Harengan, gure bihotzaren neurria ezagutzen duen Harengan.

Ebanjelioko testua: Jn. 4, 10.13-15

“Jainkoak ematen duena ezagutuko eta edatekoa nork eskatzen dizun jakingo bazenu, zeuk eskatuko zenioke berari, eta hark ur bizia emango lizuke. Ur honetatik edaten duena berriro ere egarri izango da; nik emango diodan uretik edango duena, ordea, ez da sekula egarri izango; zeren nik emango diodan

ura betiko bizia darion iturburu bihurtuko baitzaio barruan”.

Orduan, emakumeak:

“Jauna, emadazu ur horretatik, berriro egarri ez nadin, eta hona uretara etorri beharrik izan ez dezadan”.

Frantziskotar espiritualtasuna

Biografoek sarritan topatzen dute Frantzisko bakardade bila, haitzulo sakon eta ilunetan barneratuta orduak eginez, eta barne bilaketari eta bizitzaren eta sufrimenduaren misterioa konprenitzera jarria, bai eta bizitzaren eta Jainkoaren misterioa ulertzera erabat emana ere. Asisko Frantziskok arnasa eta bultzada ematen digu bilaketan barnerantz sartzeko, dugun egian geure burua ikusi eta onartzeko.

Baina norberak barnerantz egia-irrikaz begirutzen duenean ere, arriskua dauka fokua galdu eta ongi ez ikusteko. Horregatik esaten dute Frantziskoren biografoek, Frantziskok ez zuela bere bizitzan Kristo beste maisurik eduki (ik LeLu 2, 1). Eta hau da barne begiradaren frantziskotar giltza; barnera begiratu eta sakondu egin behar da, bai, baina horren guztiaren gainetik komeni da geure buruari Jesusen argira begiratzea, maitasunez gurutziltzatuaren eta Aitak bizi berrira piztuaren argira. Alde batetik barnerantz eta beharantz begiratu behar da egiaz nor eta nolakoa naizen aurkitzeko, eta bestetik gorantz eta kanporantz, Jesusen Jainkoa nor eta nolakoa den ikusteko: ur bizia, itxaropenaren iturria.

Konfiantzako otoitza

Zure eskuetan, Jauna, jartzen dut bizia.
Ene Jainko, Zuregan dut konfiantza.
Ez dakidala neure ustea huts gerta.

Gaiztakeriak mehatxu egiten dit eta indargabe nabil.
Zer egin dezaket, zu bazter uzten zaituztenen
handiustearekin?
Zer, bekatuak nigan duen indarrarekin?
Mehatxua eta jazarpena egiten dit neure buruak,
neure urguilu eta larritasunak,
neure handiusteak, neure burua finkatu beharrak.
Zuhaitz zartatuaren, pipiak barrutik joaren, antzekoa naiz.

Baina Zu nire itxaropena zara.
Eta ezerk, ez inork, ez nik neuk ere, ezin dugu zure aurka.
ene Jainko leial, ene salbatzaile ahaltsua.

Erakutsi niri, Jauna, zure bidea,
eskola nazazu zure espirituaren egiaz.
Egin nazazu esaneko eta leial zeure argian,
zuk bakarrik ezagutzen baituzu nire bihotza,
ikertzen nire barru-barruko asmoak.

Gogoan izan, Jauna,
betikoak direla zure onberatasuna eta errukia.
Gogoan izan, zure sorkari naizela,
gogoan izan arriskuan dudana nire bizitza.
Begira iezadazu amultsuki, Jauna,
zuzenetsi nazazu zeure graziaz,
ken iezadazu mozorroa, ene Aita,
baina egizu ontasun handiaz,
zure maitasunaren gozoaz
nire defentsak hautsiz.

Gutuneko azken hitzak

Apaltasuna eta egitasuna elkarrekin estu eta sakon lotuak datoz. Jainkoari begira, horiek dira guri dagokigun lan-partea. Apaltasunak neure errealitate mugatua onartzea inplikatzan du eta horri aurre egiteko egitasuna dakar berekin, horrela geure gainditu gabeko irakasgaiak saihesteko Jainkoa parapeto gisa erabil ez dezagun.

2011ko maiatzeko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate maiatzeko erreferentzia guztiak:

1 Jn 20, 19-31	8 Lc 24, 13-35	15 Jn 10, 1-10	22 Jn 14, 1-12	29 Jn 14, 15-21
2 Jn 3, 1-8	9 Jn 6, 22-29	16 Jn 10, 11-18	23 Jn 14, 21-26	30 Jn 15, 26-16,4 ^a
3 Jn 14, 6-14	10 Jn 6, 30-35	17 Jn 10, 22-30	24 Jn 14, 27-31 ^a	31 Lk 1, 39-56
4 Jn 3, 16-21	11 Jn 6, 35-40	18 Jn 12, 44-50	25 Jn 15, 1-8	
5 Jn 3, 31-36	12 Jn 6, 44-51	19 Jn 13, 16-20	26 Jn 15, 9-11	
6 Jn 6, 1-15	13 Jn 6, 52-59	20 Jn 14, 1-6	27 Jn 15, 12-17	
7 Jn 6, 16-21	14 Jn 15, 9-17	21 Jn 14, 7-14	28 Jn 15, 18-21	

Oharrak

·Asis Sareari buruzko informazioa hartu nahi izanez gero, edo gutun hau hilerio hartzeko izen emateko, deitu 646-214896 telefono zenbakira edo bidali mezua asissarea@arantzazu.org helbide elektronikora.

·Asis Sarearen web gunean Gutun honen edukietan sakontzeko lanabes hau aurkituko duzu: "Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldea lan egiteko iradokizunak".

·Diru-ekarpenak egiteko kontu zenbakia: 0182 0326 15 0201516844 (BBVA).

Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldean lan egiteko iradokizunak

Asisko gutuna

2011ko apirila. 2. printzipioa: eguneroko bizitza,

barnerantz: apaltasuna

30. zenbakia

Beste behin ere gure sareko bigarren printzipiora gatoz: “Eguneroko bizitza: barnerantz, apaltasuna”. Honako hau proposatzen digu, gogoetarako gai bezala, hil honetako gutunak: barnerantz begiratzea. Eta hori apaltasunetik egin dezakegu bakarrik, geure alde onak eta txarrak agerian jartzeko ditugun zailtasunak onartuz.

Geure baitara begiratu

Geure baitara begiratzeko ariketa egiteko, denbora eta leku bat behar dugu, berori lasai egin ahal izateko, eta ahal bada isiltasuna, barrurantz begiratzeko. Hil honetan proposatzen dizut egin dezazula, egun guztietan edo batzuetan, zeure ekintzak aztertzeke ariketa: ze jarrera izan duzun haiei buruz, zerk eraman zaituen beroriek horrela egitera eta ez beste era batera, eta nola sentitu zaren. Eguneroko egiteak izan daitezke egunean egun dauzkagun lanetatik hasi eta pertsonetik harremanak bitartekoak.

Saia zaituz ez arrazoitzen, konklusiorik ez ateratzen; utzi pentsamenduei jarioan etortzen.

Ariketa zenbait bider egin duzunean, ahalegin zaituz egin duzuna Jesusen begiekien ikusten eta jar ezazu berori haren eskuetan.

Barrurantz begiratzeak bihotzaren asmoa aurkitzen laguntzen digu. Arrazoitzeak askotan geure buruari tranpa egitera eramaten gaitu, geure burua nolabait zuzenestera, bihotzeko asmoa agerian jartzera baino gehiago; agerian jartzeak, berriz, egurats gorrian uzten bagaitu ere, besteengana eta gure bizitzan plus bat den Jainkoagana irekitzen gaitu.

Horregatik du hainbesteko garrantzia konklusiorik ez ateratzeak eta dena Jainkoaren eskuetan bakarrik uzteak, horrela Jainkoaren bihotzetik begiratu eta ikus dezagun.

“Jauna, emadazu ur horretatik”

Jainkoak ematen duena ezagutzeaz eta edatekoa nork eskatzen dizun jakiteaz mintzo da Jesus testuan. Jesusek berak eskatzen dit edatekoa. Zer nahi dezake nigandik? Seguru asko ez du nigandik ezer nahi, ni neu nahi nau; eman nahi diot neure burua?

Bera da, nire bihotza txera eta maitezko begiez begiratzen duen bakarra; zer eta nolakoa naizen jakinik, Bera da edatekoa eman nahi didan bakarra.

Egizu otoitz testuaz, utz zaituz Jesusek begiratu izaten; utz iezaiozu, zeure egarria ase dezakeen “betiko bizia darion iturburu” zugan bihurtzen.

Jesusi zure egarria asetzen uzteak zera ekarriko du: zu ere besteen egarria asetzeko gauza izatea, baina apalki jakinez, Ur hori ez dela zurea, baizik eta Jesus bera egin dela zugan besteentzako iturri.

“Bere begiak Jaunaren gurutzean jarri zituen”

Frantzisko donea, bakarrik egoteko tokien bila ibiltzen zen. Egin zuk gauza bera. Bila itzazu bakarrik egoteko toki eta momentuak, beroriek zeure buruarekin eta Jainkoarekin aurkitzera eraman zaitzaten. Ez izan beldurrik bakardadeari. Beldurrak, segurtasun faltak eta zalantzak agertuko dira, baina hori da norberaren egia aurkitzeko modu bakarra.

Zeure buruarekin eta Jesusekin aurkitze horretan, begira iezaiozu eta egin topo haren begirada eta maitasunarekin. Harengandik aurkituko duzu zeure burua, Hark bihotzera begiratu ezagutzen zaitu eta badaki zure berri, ezagutzen ditu zure tranpak eta lagundu egiten ditu beroriek ezagutzen, horrela Bera zuretzat ura darion iturburu izanik bizi zaituzen.

“Zure eskuetan, Jauna, jartzen dut bizia”

Balia zaituz otoitz eder honetaz, zeure burua Jainkoaren eskuetan jartzeko, eta bera esaldiz esaldi, eta hitzez hitz zeure egiteko. Barnerantz begiratu, saia zaituz zeure bekatua zein den aurkitzen: urguilua, larritasuna, kontrolatu beharra ... eta otoitzak bezala esaiozu, zuhaitz zartatua zarela, Bera gabe huts zarela. Utzi Berari zeure bihotzean oihartzun egiten, eskatu hari zeure bizitzako une honetan gehien behar duzula sentitzen duzuna, utzi Haren errukizko eta txerazko begiradak bihotza ikus diezazun; ez duzu harena bezalako begiradarik aurkituko.